

III. eranskina. MEREZIMENDUEN BAREMOA

a) Merezimendu profesionalak: gehienez ere 30 puntu.

Administrazio publikoetan kasuan kasuko deialdia argitaratzen den egunera arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 30 punturekin, puntuazio honen arabera:

a.1) Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko **lanpostu berean**, aldi baterako izaeraz egindako zerbitzuak: **4 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.**

a.2) Iruñeko Udalean eta eta haren erakunde autonomoetan, **beste lanpostu batzuetan** egindako zerbitzuak: **0,50 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.**

a.3) Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean egindako zerbitzuak: **1,50 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.**

a.1, a.2 eta a.3 apartatueterako oharra:

1. a) apartatu honi dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntukoa izanen da.
2. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio.
3. Zerbitzuak baloratuko dira zerbitzu bakoitzaren hasiera egunetik amaierara arte, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.
4. Ez dira baloratuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.
5. Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan bete duen lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.
Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuegatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.
6. Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk: gehienez ere 10 puntu.

b.1) Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan lanpostu berean sartzeko azken prozesua lanposturik eskuratu gabe gainditu izana: 5 puntu.

b.2) Beste titulazio akademiko batzuk:

b.2.1) Titulazio ofizialak eta master-tituluak, maila berekoak edo goragokoak, deialdian sartzeko titulazioa baloratu gabe: 1,25 puntu titulazio ofizial bakoitzeko, gehienez ere 2 titulazio **(2,50 puntu gehienez)**.

b.2.2) Deialdiaren xede den lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza-ekintzak, 10 orduko edo gehiagoko iraupena dutenak eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerakoak: 0,5 puntu prestakuntza-ekintza bakoitzeko, gehienez ere 5 prestakuntza **(2,50 puntu gehienez)**.

OHAR GARRANTZITSUA (B2.1 ETA B2.2): Titulu eta prestakuntza-ekintza guztiek aurkezten den lanpostuarekin lotuta egon beharko dute, zeharkako prestakuntza-ekintzak barne, hala nola informatika, berdintasuna edo prebentzioa.

b3) Hizkuntzak

Ingelesa, frantsesa, alemana eta euskara: Ingelesa, frantsesa edo alemana jakitea, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik, baita euskara jakitea ere, baloratuko da, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez bada: 0,50 puntu gehienez haietako bakoitzagatik.

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko apartatuetan hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako baloraziorik handiena emanen zaio.

Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailaren pareko titulu edo ziurtagiri bat izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da; A2 mailaren parekoa izanez gero, 2/5; B1 mailaren parekoa izanez gero, 3/5; eta, B2 mailaren parekoa izanez gero, 4/5.